

**ARAUGINTZAKO
PROIEKTUAK**

**Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunari eta herritarren
parte-hartzeari buruzko Proiektua**

2018 otsailaren 13ko bileran, Mahaiak erabaki zuen lege-proposamenari buruz aurkeztutako zuzenketa batzuk izapidetzeko onartzea, eta agindu zuen Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoaren Batzordera igortzeko eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

[Zuzenketen testua](#)

**Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari
buruzko lege-proiektua**

Joan zen martxoaren 11n, Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoaren Batzordeko Mahaiak erabaki zuen baiezkoa ematea Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak aurkeztutako agerraldi-eskaerari, honako hauek lege-proiektuari buruzko informazioa eman zezaten:

- Jaime Doreste Hernández
- Ararteko
- Emakunde

[Proiektuaren testua](#)

**Beste dokumentu
interesgarri batzuk**

Doktrina-azterlanak

- *La (inevitable) transformación de la Función Pública*, Rafael Jiménez Asensio (egilearen blogean argitaratua, 2019ko martxoaren 30ean).

- *La defensa de la ciudad habitable y accesible para las personas con discapacidad frente al acoso de las terrazas y veladores. El aldabonazo del Tribunal Supremo*, Juan Antonio Chinchilla Peinado (IDL-UAMen blogean argitaratua, 2019ko martxoaren 27an).

- *La utilización del blockchain en los procedimientos de concurrencia competitiva*, Manuel Pereiro Cárceles (INAPen La Administración al día aldizkarian argitaratua, 2019ko martxoaren 28an)

- *El TS fija como criterio interpretativo que el modo de acceso al grado personal de funcionarios de carrera es aplicable a los interinos*, (INAPen La Administración al Día aldizkarian argitaratua, 2019ko martxoaren 7an).

- *Guía sobre lo que se puede comunicar desde las administraciones públicas en período electoral*, Amalia López Acera (egilearen blogean argitaratua, 2019ko martxoaren 7an).

- *La subida del salario mínimo interprofesional para 2019. Incidencia y actuaciones a realizar en los contratos públicos. Análisis de la solución planteada por la Abogacía del Estado*, José Manuel Martínez Fernández, (INAPen La Administración al día aldizkarian argitaratua, 2019ko otsailaren 22an).

- *La agenda de legislar mejor como eje de gobernanza democrática en la Unión Europea: impacto y potencialidades para las entidades subestatales*, Beatriz Pérez de las Heras, (Sektore Publikoko Kontratazioaren Behatokiaren irizpatean argitaratua, 2019ko otsailaren 22an).

- *Caja de herramientas (Toolkit) de Integridad en la Contratación pública*, Concepción Campos, (egilearen blogean argitaratua, 2019ko apirilaren 4an).

- *Alternativas al contrato menor: Contratación conjunta esporádica en los PANAPS*, Diego Ballina Díaz, (Kontratazio Publikoaren Behatokiaren iritzi-atalean argitaratua, 2019ko apirilaren 1ean).

- *Criterios para el cálculo del cómputo del requisito de actividad exigido por la Ley de Contratos del Sector Público en aquellas entidades que sean consideradas medios propios* (Kontratazio Publikoaren Behatokiaren iritzi- eta analisi-atalean argitaratua, 2019ko martxoaren 29an).

- *¿Dónde están los catálogos electrónicos?*, Isabel Gallego Córcoles (Kontratazio Publikoaren Behatokiaren iritzi- eta analisi-atalean argitaratua, 2019ko martxoaren 25ean).

- *Subrogación de plantilla según la Ley de Contratos del Sector Público*, Ignasi Beltrán de Heredia Ruiz (egilearen Una mirada crítica a las relaciones laborales blogean argitaratua, 2019ko martxoaren 14an).

- *Las instrucciones de la oficina "independiente" de regulación y supervisión de la contratación*, Rafael Jiménez Asensio (Hay Derecho-Expansión blogean argitaratua, 2019ko martxoaren 7an).

- *La Oficina Independiente de Regulación y Supervisión de la Contratación (OReISCon) como bóveda de la arquitectura de regulación y supervisión de la contratación pública*, José María Gimeno Feliú, y José Antonio Moreno, (Kontratazio Publikoaren Behatokiaren iritzi-atalean argitaratua, 2019ko martxoaren 6an).

- *Ref.: A.G. – Economía, Industria y competitividad 1/2019 (R- 33/19)*

Estatuko Abokatutza Nagusia - Estatuko Zerbitzu Juridikoaren Zuzendaritzaren txostena, aztertzen duena ea bidezkoa den Estatuko Administrazioak konpentsazioa ematea berak adjudikatutako kontratu batean lanbidearteko gutxieneko soldataren igoerak eragindako gastu-gehikuntzarengatik.

- *La obligatoriedad de las instrucciones de la OIRESCON*, Silvia Díez Sastre (Tokiko Zuzenbidearen Institutuaren blogean argitaratua, 2019ko martxoaren 6an).

- *Los contratos de prestación de servicios a las personas. Repensando las formas de gestión de los servicios sanitarios públicos tras las Directivas de contratos de 2014 y la Ley 9/2017 de contratos del Sector Público*, Mónica Domínguez Martín (INAPen La Administración al Día aldizkarian argitaratua, 2019ko martxoaren 21ean).

- *La OIRESCON pone fin de la inseguridad en la aplicación del artículo 118.3 LCSP*, Javier Vázquez, (egilearen blogean argitaratua, 2019ko otsailaren 28an).

- *Contratación pública y riesgo en términos de Sistema Europeo de Cuentas (SEC-2010)*, Ester Marco Peñas (Tokiko Zuzenbidearen Institutuaren blogean argitaratua, 2019ko otsailaren 27an).

- *Kontratuen arloko Errekurtsoetarako Auzitegi Administrazio Zentralaren 747/2018 Ebazpena*, 2018ko uztailaren 31koa.

- **Estatuko Kontratazio Publikoko Aholku Batzordea::**

51/18 espedientea, 2018ko abenduaren 10ekoa. Gizarte Segurantzaren laguntzaile diren mutuen baterako kontratazio noizbehinkakoa eta esparru-akordioak. IBERMUTUAMUR.

91/18 espedientea, 2018ko abenduaren 10ekoa. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (azaroaren 8ko 9/2017 Legea) 310. artikulua aplikazioa. ISDEFE.

24/16 espedientea, 2018ko abenduaren 10ekoa. Ondorengotza lizitazio-prozeduran. JEZeko bajaren ondorioak. Montalbaneko Udala.

39/16 espedientea, 2018ko abenduaren 10ekoa. Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 36. artikulua interpretazioari buruzko txosten eguneratua egiteko eskaera. Eraikuntzako Konfederazio Nazionala.

89/18 espedientea, 2018ko abenduaren 10ekoa. Saikapenak etetea. Valentziako Generalitateko Kontratazio Administrazio Batzorde Nagusiaren Idazkaritza.

37/16 espedientea, 2018ko abenduaren 10ekoa. Zalantza, ea garbiketa-zerbitzuaren kontratua berez luzatzen ote den, kontratista berri bat zerbitzua ematen hasten den arte. Cadizko Probintzia Diputazioa.

40/18 espedientea, 2018ko abenduaren 10ekoa. Kontratu txikiak. Gastua eta faktura baimentzea. Colmenar Viejoko Udala.

86/18 espedientea, 2018ko abenduaren 10ekoa. Zubi-kontratuak eta kontratu txikien zatikatzea. IMSERSO.

- **Estatuko Kontratazio Publikorako Aholku Batzordearen Gomendioa, 2018ko abenduaren 10ekoa**, kontratazio-organoentzat. Gaia: zer ondorio sortzen diren zerbitzu-kontratu bat daukan enpresa bateko langileen soldata-baldintzak ustekabean aldatzen direnean, kontratu publikoa bete bitartean aplikatu behar den hitzarmen kolektiboa aldatu egin delako.

- **Esparru-akordio baten eremu subjektiboa hedatzea**, hasiera batean parte izan ez diren botere adjudikatzaileak sartuz. EBJAren 2018ko abenduaren 19ko Epaia, as. C-216/19 (Kontratazio Publikoaren Behatokiko Jurisprudenziaren Behatokia argitaratua, 2018ko abenduaren 19an).

- **Bidaiariak garraiatzeko zerbitzuak: alde aurreko informaziorako iragarkirik ez argitaratzearen ondorioak**. EBJAren 2018ko irailaren 20ko Epaia, C 518/17, Rudigier (Kontratazio Publikoaren Behatokiko Jurisprudenziaren Behatokia argitaratua, 2018ko urriaren 10ean).

- **Lizitatzailentzako azalpenak: publizitate- eta gardentasun-printzipioak urratzea.a**. AGren 2018ko otsailaren 20ko Epaia, rec. 2725/2015 (Kontratazio Publikoaren Behatokiko Jurisprudenziaren Behatokia argitaratua, 2018ko urriaren 10ean).

- **Gaztela-Mantxako Justizia Auzitegi Nagusiaren 280/2018 Ebazpena**, 2018ko azaroaren 5ekoa.

Eusko Jaurlaritzaren Urteko Araugintza Plana 2019rako

Gobernu Kontseiluak 2019rako Urteko Araugintza Plana onartu zuen 2019ko martxoaren 12an. Plan horrek jasotzen ditu 2019an zehar Jaurlaritzako sail bakoitzak Gobernu Kontseiluari onartzeko aurkeztu behar dizkion araugintzako ekimenak (lege-aurreproiektuak eta dekretuak). Onartutako erabakia urriaren 1eko 39/2015 Legean (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenean) xedatutakoaren ildotik doa. Lege horren arabera, urtero Eusko Jaurlaritzak argitara eman behar du araugintza-plan bat, eta bertan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak.

[Informazio gehiago](#)

Arabako Foru Aldundiaren Urteko Araugintza Plana 2019rako

Foru Aldundiak araugintza-plan bat egin du, ustez Foru Gobernu Kontseiluan, kopuruaren eta izendapenen arabera, 2019ko ekitaldian onartzeko aurkeztuko diren ekimenak jasotzen dituena. Horrela betetzen dira araupetze egokiaren, segurtasun juridikoaren eta gardentasunaren printzipioak, oinarritzko araudiak eta 29/2017 Foru Dekretuak sartutako arau-plangintzaren beharraren oinarri direnak.

[Informazio gehiago](#)

Bizkaiko Foru Aldundiaren Urteko Araugintza Plana

Urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren bidez Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da, eta 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, "Bizkaiko Foru Aldundiak urtero onartu eta argitaratuko du arau-plan bat, hurrengo urteko ekitaldian onartzeko proposatuko diren araugintza-ekimenekin eta erregelamenduzko ekimenekin. Urteko Arau Plan horretan informazio hau jasoko da, gutxienez: xedapenaren izena eta maila, lortu nahi diren helburu orokorrak, onartzeko aurreikusitako epeak eta aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea eta entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea egin behar diren ala ez".

2019rako Urteko Arau Plana 2018ko abenduaren 18ko Gobernu Kontseiluan onartu zen.

[Informazio gehiago](#)

XEDAPEN ARAUEMAILEAK

 egoboe2009

Estatuko Legeria

- **10/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 29koa**, zeinaren bidez 2019rako luzatzen den autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako superabita finantza aldetik jasangarriak diren inbertsioetarako erabiltzea, eta beste neurri batzuk hartzen diren, gaikuntza nazionala izanda toki-entitateetan ari diren langileen eginkizunen inguruan. (2019ko martxoaren 30eko BOE, 77. zk.).

- **8/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 8koa**, gizarte-babeserako eta lanaldian lan-prekarietatearen

kontra borrokatzeko presako neurriena. (2019ko martxoaren 12ko BOE, 61. zk.).

- **7/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa**, etxebizitzaren eta alokairuaren arloko presako neurriena. (2019ko martxoaren 5eko BOE, 55. zk.).

- **6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa**, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena. (2019ko martxoaren 7ko BOE, 57. zk.).

- **5/2019 Legea, martxoaren 15ekoa**, higiezin-kredituko kontratuak arautzen dituena. (2019ko martxoaren 16ko BOE, 65. zk.).

- **4/2019 Legea, martxoaren 7koa**, unibertsitatetik kanpoko hezkuntzaren eremuan irakaslanean eta irakaskuntzan jarduteko baldintzak hobetzeko. (2019ko martxoaren 8ko BOE, 58. zk.).


- **3/2019 Legea, martxoaren 1ekoa**, genero-indarkeriaren eta emakumeen kontrako bestelako indarkeria moten biktimen seme-alaben umezurtz-egoera hobetzeko. (2019ko martxoaren 2ko BOE, 53. zk.).

- **244/2019 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa**, energia-autokontsumoaren baldintza administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak arautzen dituena. (2019ko apirilaren 6ko BOE, 86. zk.).

- **130/2019 Errege Dekretua, martxoaren 8koa**, Diru-laguntzen Datu-base Nazionala eta diru-laguntzen zein gainerako laguntza publikoen publizitatea arautzen dituena. (2019ko martxoaren 30eko BOE, 77. zk.).

- **Ebazpena, 2019ko martxoaren 8koa**, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiarena, honako honen 1. eranskina eguneratzen duena: 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketetan eta eratorrietan aplikatzeko den finantza-zuhurtasuneko printzipioa definitzen duena. (2019ko martxoaren 12ko BOE, 61. zk.).

- **Ebazpena, 2019ko martxoaren 6koa**, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentearena, zeinaren bidez argitaratzen baita 1/2019 Jarrabidea, otsailaren 28koa, azaroaren 8ko 9/2017 Legean arautzen diren kontratu txikiei buruzkoa. (2019ko martxoaren 7ko BOE, 57. zk.).



Euskal Autonomia Erkidegoa

- **4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa**, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa. (2019ko otsailaren 28ko EHAA, 42. zk.)

- **Ebazpena, 2019ko martxoaren 22koa**, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateentzako laguntzen deialdia egiten baita. (2019ko otsailaren 19ko EHAA, 235. zk.).



Arabako Lurralde Historikoa

- **8/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa**, zeinaren bidez berresten baita Estatuko Administrazio Orokorraren (Barne Ministerioa) eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena, 2019ko maiatzaren 26ko hauteskundeak kudeatzeko (2019ko apirilaren 3ko ALHAO, 41. zk.).

- **7/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa**, baimena emateko Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmen bat izenpetzeko Audioko udalerrian dagoen eraikuntza multzoari buruz, zeinetan baitaude ertzainetxea eta Arabako Suhiltzaileak erakunde autonomoko suhiltzaile etxea. (2019ko apirilaren 3ko ALHAO, 41. zk.).

- **6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa**, Arabako Errepideen 2016-2027rako Plan Integrala onartzeko. (2019ko apirilaren 3ko ALHAO, 41. zk.).

- **5/2019 Foru Araua, martxoaren 13koa**, Eusko Jaurilaritzaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien arteko lankidetzaren hitzarmena berresteko. Hitzarmenaren helburua da gauzatzea aldizkako argitalpenak, irrati eta telebista programak eta beste komunikabide batzuk euskaraz jasotzeko herritarrek duten eskubidea, zeina aitortuta dagoen euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Legeko 5. artikuluan. (2019ko apirilaren 3ko ALHAO, 41. zk.).

- **4/2019 Foru Araua, martxoaren 13koa**, Eusko Jaurilaritzarekin lankidetzaren hitzarmena berresten duena, Araba Erdialdeko eta Guardiako lurralde plan partzialen berrikuspen agiria egiteko dena (2019ko martxoaren 27ko ALHAO, 37. zk.).

- **3/2019 Foru Araua, martxoaren 13koa**, Nafarroako Gobernuaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena berresteko, ekainaren 24ko 13/2015 Legeak (Hipoteka Legea eraberritzekoak) ezarritako helburuak betetzea ahalbidetuko duen informatika aplikazio bat erabiltzeko. (2019ko martxoaren 27ko ALHAO, 37. zk.).



Bizkaiko Lurralde Historikoa

- **4/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa**, irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzkoa. (2019ko apirilaren 4ko BAO, 6. zk.).

- **3/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa**, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren tasak arautzen dituena. (2019ko apirilaren 4ko BAO, 6. zk.).

- **2/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa**, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Araua aldatzen duena. (2019ko apirilaren 4ko BAO, 6. zk.).

- **1/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa**, gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzte-balioaren gaineko zergarena. (2019ko apirilaren 4ko BAO, 6. zk.).

- **Bizkaiko Foru Aldundiaren 30/2019 Foru Dekretua, martxoaren 26koa**, zeinaren bidez onartzen baita Eusko Jaurilaritzaren eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren arteko Transferentzien Bitariko Batzordearen 2019ko martxoaren 20ko akordioa, errepideen arloko eginkizun eta zerbitzuak erakunde erkideetatik lurralde historikoetara eskualdatzeak Bizkaiko Lurralde Historikoan izango duen eragina zehazteari buruzkoa. (2019ko apirilaren 1eko BAO, 63. zk.).

- **Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 2908/2019 Foru Agindua, martxoaren 11koa, 2020ko** zerga itunduetango Bizkaia Lurralde Historikoko udalerrien partaidetzen behin betiko likidaziorako beharrezko informazioa zuzkitzeko toki erakundeek erabili behar duten eredia onartuz. (2019ko martxoaren 21eko BAO, 56. zk.).



Gipuzkoako Lurralde Historikoa

- **6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa**, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onesten duena (2019ko martxoaren 25eko GAO, 57. zk.).

- **5/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa**, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren organismo autonomoetako langile izateko hautapen probetan parte hartu nahi dutenei eman beharreko zerbitzuengatik tasa bat ezartzen duena. (2019ko martxoaren 18ko GAO, 53. zk.).

- **4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa**, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan. (2019ko martxoaren 18ko GAO, 53. zk.).

- **1/2019 Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa**, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzekoak. (2019ko apirilaren 2ko GAO, 63. zk.).

- **Kultur jarduerak burutzeko Gipuzkoako udalei** udal elkarteei edo udal entitateei zuzentzen zaizkien diru-laguntzak emateko 2019ko deialdia (Tokiko). (2019ko martxoaren 20ko GAO, 54. zk.).

Nafarroako Foru Komunitatea

- **15/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa**, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Kontratu Publikoiei buruzkoa. (2019ko apirilaren 1eko NAO, 62. zk.)

- **13/2019 Foru Legea, martxoaren 22koa**, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 24ko 27/2018 Foru Legea, 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. (2019ko apirilaren 1eko NAO, 62. zk.)

- **12/2019 Foru Legea, martxoaren 22koa**, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzkoa. (2019ko apirilaren 1eko NAO, 62. zk.)

- **11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa**, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa. (2019ko martxoaren 14ko NAO, 51. zk.)

- **10/2019 Foru Legea, martxoaren 4koa**, zeinaren bidez 2.094.912 euroko kreditu berezi bat ematen baita Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioa abian jartzeko. (2019ko martxoaren 7ko NAO, 46. zk.)

- **9/2019 Foru Legea, martxoaren 4koa**, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena. (2019ko martxoaren 14ko NAO, 51. zk.)

- **6/2019 Foru Legea, otsailaren 7koa**, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu batzina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena. (2019ko otsailaren 21eko NAO, 36. zk.)

- **5/2019 Foru Legea, otsailaren 7koa**, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa. (2019ko otsailaren 21eko NAO, 36. zk.)

LBESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUETAKO TOKIKO EREMUARI BURUZKO LEGEDIA

ARAGOIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **Aragoiko Gobernuaren 7/2019 Lege Dekretua, martxoaren 12koa**, alokairuko ibilgailu gidaridunen bidezko bidaiari-garraioaren arloko presako neurriei buruzkoa. (2019ko martxoaren 15eko BOA, 52. zk.)

- **1/2019 Legea, otsailaren 7koa**, zeinaren bidez aldatzen baita martxoaren 19ko 11/2003 Legea, Aragoiko Autonomia Erkidegoan animaliak babesteari buruzkoa. (2019ko otsailaren 20ko BOA, 35. zk.)

- **2/2019 Legea, otsailaren 21ekoa**, Aragoiko Autonomia Erkidegoko helduen bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzkoa. (2019ko martxoaren 6ko BOA, 45. zk.)

ASTURIASKO PRINTZERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **Asturiasko Printzerriko 5/2019 Legea, martxoaren 15ekoa**, zeinaren bidez aldatzen baita Asturiasko Printzerriko urriaren 21eko 8/2002 Legea, ikuskizun publikoiei eta aisialdiko jarduerari buruzkoa. (2019ko martxoaren 25eko BOPA, 58. zk.)

- **Asturiasko Printzerriko 4/2019 Legea, martxoaren 15ekoa**, zeinaren bidez aldatzen baita Asturiasko Printzerriko otsailaren 24ko 1/2003 Legea, gizarte-zerbitzuei buruzkoa. (2019ko martxoaren 25eko BOPA, 58. zk.)

- **Asturiasko Printzerriko 3/2019 Legea, martxoaren 15ekoa**, irabazteko asmorik gabeko eta gizarte-ekimeneko entitateekin hitzartuta gizarte-zerbitzuak emateari buruzkoa. (2019ko martxoaren 25eko BOPA, 58. zk.)

- **Asturiasko Printzerriko 2/2019 Legea, martxoaren 1ekoa**, janari-produktuen elikadura-kalitateari, bereizitako kalitateari eta zuzeneko salmentari buruzkoa. (2019ko martxoaren 8ko BOPA, 47. zk.)

- **Asturiasko Printzerriko 1/2019 Legea, martxoaren 1ekoa**, Asturiasko Printzerrian memoria demokratikoa berreskuratzea. (2019ko martxoaren 8ko BOPA, 47. zk.)

BALEAR UHARTEETAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **13/2019 Legea, martxoaren 29koa**, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 9ko 14/2010 Legea, Balear Uharteetako familia-bitartekaritzari buruzkoa (2019ko apirilaren 2ko BOIB, 42. zk.)

- **12/2019 Legea, martxoaren 12koa**, herri-galdeketei eta parte hartzeko prozesuei buruzkoa. (2019ko martxoaren 19ko BOIB, 36. zk.)

- **11/2019 Legea, martxoaren 8koa**, Balear Uharteetako boluntaritzari buruzkoa.

(2019ko martxoaren 14ko BOIB, 34. zk.).

KANARIETAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **2/2019 Legea, urtarrilaren 30ekoa**, zeinaren bidez Fuerteventura Uharteko Kabilidoari aplikatzen baitzaio Kanaria Uharteetako Kabilidoak Antolatuzeko Araubide Berezia, aurreikusita dagoena Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen hamalagarren xedapen gehigarrian. (2019ko otsailaren 8ko BOC, 27. zk.).

KANTABRIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **Kantabriako 2/2019 Legea, martxoaren 7koa**, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasunerakoa. (2019ko martxoaren 8ko BOC, 5. zk.).

GAZTELA-MANTXAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **4/2019 Legea, martxoaren 29koa**, de Medidas Retributivas. (DOCM núm. 67, de 4 de abril de 2019).

- **3/2019 Legea, martxoaren 22koa**, del Estatuto de las Personas Consumidoras en Castilla-La Mancha. (DOCM núm. 64, de 1 de abril de 2019).

- **2/2019 Legea, martxoaren 15ekoa**, Gaztela-Mantxako akademiei buruzkoa. (2019ko martxoaren 26ko DOCM, 60. zk.).

GAZTELA ETA LEONGO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **7/2019 Legea, martxoaren 19koa**, Gaztela eta Leongo Erkidegoko Administrazioako langile publikoen lanbide-karrera ezarri eta garatzeari buruzkoa. (2019ko martxoaren 26ko BOCYL, 59. zk.).

- **6/2019 Legea, martxoaren 19koa**, zeinaren bidez aldatzen baita irailaren 27ko 10/2010 Legea, Gaztela eta Leongo osasun publikoari eta elikagaien segurtasunari buruzkoa. (2019ko martxoaren 26ko BOCYL, 59. zk.).

- **5/2019 Lege Dekretua, martxoaren 5ekoa**, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 8ko 5/1999 Legea, Gaztela eta Leongo hirigintzari buruzkoa. (2019ko martxoaren 26ko BOCYL, 59. zk.).

- **4/2019 Legea, martxoaren 19koa**, zeinaren bidez aldatzen baita martxoaren 7ko 2/2007 Legea, Gaztela eta Leongo Osasun Zerbitzuko Estatutupeko Langileen Estatutu Juridikoarena, zainketa aringarrietako medikuaren kategoria sortzeko. (2019ko martxoaren 26ko BOCYL, 59. zk.).

KATALUNIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **5/2019 Lege Dekretua, martxoaren 5ekoa**, etxebizitza eskuratzeko bideak hobetzeko presako neurrii buruzkoa. (2019ko martxoaren 7ko DOGC, 7825. zk.).

EXTREMADURAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **6/2019 Legea, otsailaren 20koa**, Extremadurako Kontsumitzaileen Estatutuarena. (2019ko otsailaren 26ko DOE, 39. zk.).

- **5/2019 Legea, otsailaren 20koa**, Extremadurako Errenta Bermatuari buruzkoa. (2019ko otsailaren 26ko DOE, 39. zk.).

- **4/2019 Legea, otsailaren 18koa**, Extremadurako ikastetxeetako efizientzia energetikoa eta temperatura- zein giro-baldintzak hobetzeari buruzkoa. (2019ko otsailaren 21eko DOE, 36. zk.).

ERRIOXAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

3/2019 Legea, martxoaren 18koa, zeinaren bidez aldatzen baita maiatzaren 2ko 5/2006 Legea, Errioxako lurralde-antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa. (2019ko martxoaren 20ko BOR, 34. zk.).

2/2019 Legea, martxoaren 18koa, zeinaren bidez aldatzen baita urriaren 3ko 7/1997 Legea, Errioxako Autonomia Erkidegoko Garapen Ekonomikorako Agentzia sortzen duena. (2019ko martxoaren 20ko BOR, 34. zk.).

1/2019 Legea, martxoaren 4koa, 2019, urterako ekonomia-, aurrekontu- eta zerga-neurri presakoei buruzkoa. (2019ko martxoaren 6ko BOR, 28. zk.).

MADRILGO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **3/2019 Legea, martxoaren 6koa**, Madrilgo Erkidegoko familia-elkarguneak arautzen dituena. (2019ko martxoaren 13ko BOCM, 61. zk.).

MURTZIAKO ESKUALDEA

- **2/2019 Legea, martxoaren 1ekoa**, Murtziako Eskualdeko bidezidor seinaledunei buruzkoa. (2019ko urtarrilaren 3ko BORM, 2. zk.).

VALENTZIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **3/2019 Lege Organikoa, martxoaren 12koa**, Valentziako Erkidegoaren Autonomia Estatutua erreformatzen duena, Estatuak Valentziako Erkidegoan inbertitzei buruz hartzen dituen erabakietan Valentziako Generalitateak parte hartzeari dagokionez. (2019ko martxoaren 13ko DOGV, 8505. zk.).

- **3/2019 Lege Dekretua, martxoaren 22koa**, Consellena, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Valentziako Erkidegoan zerbitzu publikoetarako irispide unibertsala sustatzeko, zailtasun ekonomiko-finantzario bereziak dituzten toki entitateak saneatze aldera, eta biztanle-dentsitate txikiko eskualdeetan zerbitzuak kofinantzatzeko. (2019ko martxoaren 26ko DOGV, 8514. zk.).

- **Generalitatearen 6/2019 Legea, martxoaren 15ekoa**, zeinaren bidez aldatzen baita martxoaren 22ko 1/2011 Legea, Valentziako Erkidegoko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutua onartzen duena, hipoteken eta bestelako kredituen titulazioaren eta merkataritzako zenbait jardunbideren aurrean kontsumitzaileek informazioarako duten eskubidea bermatzeko. (2019ko martxoaren 21eko DOGV, 8510. zk.).

- **5/2019 Legea, otsailaren 28koa**, Valentziako Erkidegoko nekazaritza-egiturei buruzkoa. (2019ko otsailaren 27ko DOGV, 8495. zk.).

- **4/2019 Legea, otsailaren 22koa**, Valentziako Erkidegoko Profesionalen Kontseilu

eta Elkargoei buruzko abenduaren 4ko 6/1997 Legearen III. tituluko II. kapitulua aldatzen duena. (2019ko otsailaren 27ko DOGV, 8495. zk.).

JURISPRUDENTZIA

Konstituzio Auzitegia

32/2019 Epaia, 2019ko otsailaren 28koa. Osoko Bilkura. 4703-2018 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua. Diputatuen Kongresuko Unidos Podemos-En Comú Podem-En Marea talde parlamentario konfederaleko berrogeita hamarretik gora diputatuk jarri zuten errekurtsu hori, ekainaren 11ko 5/2018 Legearen aurka. Lege horrek aldatu egiten du urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea, Prozedura Zibilarrena, etxebizitzak legez kanpo okupatzeari dagokionez. Egoitzaren bortxaezintasunerako, benetako babes judizialerako, defentsarako, prozesuan berme guztiak izateko eta etxebizitzarako eskubideak: etxebizitzaren legez kanpoko okupazioari aurre egiteko ezarritako neurrien konstituzionaltasuna. Boto partikularra.

17/2019 Epaia, 2019ko otsailaren 11koa. Bigarren Sala 1104-2018 babes-errekurtsua. Diputatuen Kongresuko Unidos Podemos-En Comú Podem-En Marea talde parlamentario konfederaleko bozeramaile Irene María Montero Gil andreak sustatu zuen errekurtsu hori, Kongresuko mahaiaik ekimen parlamentario bat ez onartzeko hartutako erabakien kontra. Ordezkaritza-eginkizunetan aritzeko eskubidea urratzea, herritarrek euren ordezkarien bitartez arazo publikoetan parte hartzeko duten eskubideari lotuta: Diputatuen Kongresuko mahaiairen erabaki batzuek, Gobernuaren irizpidea onartuz, uko egin zioten Langileen Estatutua erreformatzeko lege-proposamen bat aintzat hartzeari (Konstituzio Auzitegiaren 34/2018 eta 44/2018 epaiak).

Auzitegi Gorena eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusia

Auzitegi Gorenaren 311/2019 Epaia, 2019ko martxoaren 12koa. Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga. Konstituzio Auzitegiak 59/2017 Epaian egindako konstituzio-kontrakotasunaren deklarazioaren norainokoa. 2018ko uztailaren 9ko epaian jasotako doktrina errepikatzea (RCA/6226/2017). Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 107.1 eta 107.2 a) artikuluek konstituzio-kontrakotasun eta deuseztasun partziala baino ez dute: konstituzionalak dira eta erabat aplikagarriak, zergapekoak frogatu ezean lurren jabetza edozein tituluren bidez eskualdatu izanak ez duela agerian jarri haien balioaren gehikuntzarik, edo, bestela esanda, ez duela agerian jarri Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikuluan oinarrituta zergapetu daitekeen ahalmen ekonomikorik. TOALTBren 110.4 artikulua, aldiz, konstituzio-kontrakoa eta deuseza da kasu guztietan. Auzian kasazio-errekurtsua baiestea, eta jarduketetan atzera egin beharra, auzialdiko organoak balora dezan autoetan egindako frogak, zergapetu daitekeen balio-gehikuntzarik izan den ala ez argitzea.

Auzitegi Gorenaren 280/2019 Epaia, 2019ko martxoaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala. Cannabis klub sozialen kokapena arautzen duen udal ordenantza (Donostia): ez-zilegi (zigortzekoa) izan daitekeen jarduera, udalaren eskumenetik haragokoa. Estatuari dagokio ex exclusiva hura arautzea (Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikulua).

Auzitegi Gorenaren 279/2019 Epaia, 2019ko martxoaren 5koa. Lekeitioko Udalak 2014ko ekitaldirako onartutako aurrekontuaren aurkaratzea; zehazki, Udalbiltzaren kuota dagokion partidaren kontrakoa.

Auzitegi Gorenaren 2019ko urtarrilaren 24ko Autoa. Adierazten du ez dela onartzen doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsu bat, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko lan-arloko Salaren 2018ko otsailaren 15eko epaiaren kontrakoa, zeina 603/17 erregutze-errekurtsuan eman baitzen; errekurtsu horrek Madrilgo lan-arloko 40. Epaitegiaren 2017ko maiatzaren 8ko epaia aurkaratu zuen, Canal de Isabel II Gestión SAREN aurka bideratutako 653/15 prozeduran emana, lan-harremanan aitortpena zela eta.

TOKI-ESPARRUA EUROPAN

IMG_4043_CDR

Europa digitala guztientzat: konponbide digital adimendunak EBko herritar guztien onerako izan behar dute

Europako Eskualdeetako Lantaldeko lehendakaria eta lehendakariordea hurrengo Europako Batzordeari eskatzen ari zaizkio bermatu egin dezala eraldaketa digitalaren onura ekonomiko eta sozialak toki-komunitate guztietara eta herritar guztiengana heltzea).

Informazio gehiago
(ingelesez)

Captura de pantalla 2019-02-14 a las 19:06:02

Europako Parlamentuak onztatzen eman dituzten eskualdeen garapenera begira toki-buruzagiek formulatutako lehenetsiak

Eskualde Garapenerako Europako Funtserako eta Kohesio Funtserako 2021-2027 aldirako onartu diren arauak bat datoz Europako Eskualdeetako Lantaldearen proposamenekin.

[Informazio gehiago](#)

Europako Eskualdeetako Lantaldearen irizpenak, 2019ko martxoaren 7ko DOUEn argitaratuak:

- (2019/C 86/02) — Gaia: «**2018ko hedapen-paketea**»¹⁸»
- (2019/C 86/03) — **Ekonomia digitalaren fiskalitatea**
- (2019/C 86/04) — Gaia: «**Ekintza Plana: garapen jasangarria finantzatzea**».
- (2019/C 86/05) — **Energiaren arloko tokiko ereduak eta tokiko energia-komunitateen egitekoa Europako trantsizio energetikoan**

ARGITALPENAK

190405_criterios_calidad_excelencia

50 Criterios de Calidad y Excelencia para la prestación del servicio, que aportan valor en la Contratación Pública

Club de excelencia en gestión
2018ko azaroa

[Deskargatu](#)

ATL_FDGL

Anuario de Transparencia Local, 2018

Democracia y Gobierno Local fundazioa
Madrid, 2018

[Informazio gehiago](#)

0006029_manual-para-el-asesoramiento-representacion-y-defensa-de-las-entidades-locales_300

Manual para el asesoramiento, representación y defensa de las Entidades Locales

Zuzendaria: Rubén Martínez Gutiérrez,
Manuel Fernández Salmerón
Tirant lo Blanch argitaletxea
Valentzia, 2019

[Informazio gehiago](#)

Guia de gestin local

Nuevos canales de comunicación como herramientas de participación e implicación ciudadana

Guía de Gestión Local
Kaleidos.red, 2019

[Informazio gehiago](#)

Control

Reglamento de control interno local

Función interventora, control financiero permanente y auditoría pública
Egilea: Manuel Fueyo Bros
Aranzadi argitaletxea, Iruña, 2019

[Informazio gehiago](#)

Mora-Aliseda

Ordenación del espacio: Ciudades

Zuzendaria: Julián Mora Aliseda
Aranzadi, 2019

Informazio
gehiago

Captura de pantalla_2019-04-05 a las_0.06.28

Learning Handbook Public Buildings Module

Innovative financing schemes to improve the energy performance of public buildings, Prospect, 2019

Deskargatu

Carta_local_322

Carta Local Nº 322

2019ko martxo
Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioa (FEMP)

Deskargatu

DEIALDI INTERESGARRIAK

Captura de pantalla_2019-04-04 a las_23.40.54

European Capital of Innovation Awards 2019

Eskaera egiteko azken eguna: 2019ko ekainaren 6a

Informazio
gehiago

Resilient_Cities

Resilient Cities 2019

Lekua: Bonn, Alemania
Noiz: 2019ko ekainaren 26tik 28ra bitartean.

Informazio
gehiago

CIDEU

Ciudad, Cultura y Agenda 2030

CIDEU bilera
Lekua: Santiago de los Caballeros, Dominikar Errepublika
Noiz: 2019ko uztailaren 17an, 18an eta 19an

Informazio
gehiago

Ciudades digitales

Hiri digitalen praktika-komunitatea

Informazio
gehiago